

Jose Anjel Aldai Arrillaga

## **BASERRI BIZIARI EUSTEKO LANAK**

**Nekazaritza sindikalismoaren  
historia bat**



### **SAIAKERA**

504 or. | 170 x 240 cm. | PAPER-AZALEZ

Salneurria 26,00 €

ISBN 978-84-17065-08-9



Azken mende erdian baserri-bizitzak alimaleko eraldaketa jasan du eta liburu honek baserritarrak zetozen aldaketa erraldoiei aurre egiteko beren burua sindikatuetan antolatzeko prozesua azaldu nahi du. Herriko baserrietatik baserritarren sindikatuetara egindako jautzia argitu nahi du lanak eta, zentzu horretan, Euskal Herriko nekazaritza-sindikatu nagusien historia txiki bat da.

Laborantza munduan egon diren aldakuntzak eta bila-kaerak hobeto ulertzeko tresna ere bada: esne grebak, traktoradak, kuotak, administrazioarekiko harremanak, transgenikoak, jatorrizko izendapenak, elikadura krisiak... Liburuak hauek guztiak jorratzen ditu, baina haratago ere badoa, lan honen asmoa ez zelako soilik azken hamarkadetan baserriari gertatutakoa azaltzea, baizik eta testuinguru horretan baserritarrak sindikatuetan nola antolatzen hasi ziren kontatzea, zerk eragin zituen mugimendu haiek, nortzuek eta nola gorputzu zituzten, eta nola erantzun dioten nekazaritza hainbeste baldintzatu duen testuinguru politiko eta sozioekonomiko berriari. Eraldaketa prozesu horretan Euskal Herriko laborariek munduan nagusitzen den eredu produktibistari aurre egiteko proposatzen duten nekazaritza eredu berrian eta elikadura burujabtzaren kontzeptuan ere sakondu nahi du lan honek, biak ala biak gure herria eta mundua bera eraldatzeko ezinbesteko tresna direlakoan.



78. Posta kutxa  
31300 Tafalla Nafarroa  
Tel. 948 703 934  
txalaparta@txalaparta.com  
[www.txalaparta.eus](http://www.txalaparta.eus)